

KONTSULTORETZA ZERBITZUA KONTRATATZEKO OINARRI TEKNIKOEN AGIRIA, EUSKADIN ORNITOLOGIAKO PRODUKTU TURISTIKOA ZEHAZTEKO ETA FINKATZEKO

AURREKARIAK

EAEko turismo-sektorean izandako garapenaren azterketan agerian jarri duenez, naturako turismoaren azpisektorean ondo garatu ez den ahalmena dago. Garatu beharreko baliabide eta jarduketa multzoaren artean, aipagarria da turismo ornitologikoaren jarduera.


lkerketa batzuek diotenaren arabera, Euskadin baliabide ornitologikoen aniztasun handia dago; horiek natura babestuta duten eremuetan daude eta, denen artean, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde osoaren %12 osatzen dute:

- Urdaibai Biosfera Erreserba.
- Europa osoan garrantzia duten guneko hezeak –RAMSAR– (Urdaibai, Txingudi, Guardiako aintzirak, Salburua, Uribarri Ganboko urtegiak,...).
- Hegaztien Babes Berezikoko Zonak –HBBZ– (Urdaibaiko itsasadarra, Txingudi, Garobel, Valderejo-Artzena mendigunea, Izki,...).
- Parke naturalak (Armañon, Gorbeia, Urkiola, Aitzgorri, Aralar Aiako Harria, Valderejo eta Izki).

Ikusten denez, baliabide ornitologiko handiak ditugu, hegazti migratzaileak igartzeko lekuak; halaber, proiektu sorberriak ere badira, bai Urdaibaiko inguruan (Birding Immigration Center, Madariaga Dorrea,...), baita Foru Aldundiek sustaturiko proiektuak eta udalerrri mailako proiektuak ere, adibidez, Gasteizeko Udaleko Salburuan (IIZren bidez) egindako ingurumen-susperraldia.

Gure eskaintzaren ezaugarrien artean, honako hauek aipatuko ditugu:

- Ahalmen ornitologiko handia dago, baina eskaintza ez dago egituratuta, eta, horren ondorioz, zailagoa da interes turistikoa duten baliabideak hautatzea eta eskaintza erakargarria sustatzea.



- Seinaleak ez daude bateratuta; beraz, ez dago interesa duen bisitariak ezagutzeko moduko eskaintzarik.
- Baliabidearen sustapen turistikorako materiala ez da nahikoa.
- Ez dago lotura nahikorik ostatuekin eta turismo-sektoreko enpresen ekimenarekin.

Hortaz, ezinezkoa da erabiltzaileak produktuaren ideia bateratutzat ikustea EAEko ornitologia-eskaintza; ezaugarri horien ondorioz, baliabide ornitologikoen ez dute balio handirik produktu turistikotzat.

Ezinbestekoa da Euskadin turismo ornitologikoaren ahalmena eta benetako harrera-gaitasuna dimentsionatzea; horretarako, produktuaren lurralde-planifikazio egokia eta merkatuko ikerketa zuzena diseinatu behar da, eskaintza turistiko hori garatu ahal izateko.

LEHIAKETAREN HELBURUA

Lehiaketa honen helburua, izan ere, Baldintza Teknikoen Agiri honetan adierazitako lanak egiteko aholkularitza enpresa baten laguntza kontratatzea da, **turismo ornitologikoa produktu turistikotzat zehazteko eta garatzeko, 2008-2009 aldian.**

IKERKETAREN GARAPENA

a) Eskariaren azterketa

- Estatu eta europar turismo ornitologikoaren eskariaren ezaugarri nagusien azterketa.
 - a. Labainketa, karakterizazioa, motibaturiko segmentuen antzematea eta kuantifikazioa.
- Turismo ornitologikoaren sustapenerako tresnen eta banaketa bideen azterketa
 - a. Bitartekaritza bide nagusiak
 - b. Sustapen eta hedabide tresna nagusiak
 - c. Programatzaile nagusiak

b) Konkurrentziaren azterketa

- Interesgarriak diren eta martxan dauden Estatuko eta europear jarduera arrakastatsuen deskribapena eta alderatzea. Hauen eskaintzaren kuantifikazioa, merkatuan daukaten jarrera eta garaturiko estrategiak
- Ornitologiarekin erlazionaturiko lankidetzaren proiektu europarrak.

c) Euskadiko eskaintza ornitologikoaren azterketa

- Euskadiko errekurtsu ornitologikoen diagnosia eta bere balio turistikoaren azterketa
- Ornitologiaren inguruan dauden ekintza ezberdinen azterketa (jarduerak, erakundeak, arduradunak...)
- Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundien eskuduntza ornitologiaren inguruan

d) Produktuaren zehaztapena eta ezaugarriak

1. Hautapen-irizpideak.
2. Proposatutako lurralde-eredua.
3. EAEko turismo ornitologikoa produktu turistikotzat kudeatzeko antolamendu-eredua.
4. Kalitate estandarren definizioa zerbitzuetan
5. Baliabide ornitologikoak balioztatzen laguntzeko sistemen diseinua eta abioa, Foru Aldundiekin, turismo-lankidetzako lurralde-erakundeekin eta eskualdeko erakundeekin lankidetzan (taldeak, mankomunitateak eta ADRak).

e) Produktuaren marketing-estrategia

- Irudi marka.
- Marketing-plana.
- Web espezializatu baterako aurretiazko diseinua.
- Azoka espezializatuak, argitalpenak, argitalpenen edizioak, etab.

f) 2009an ezartzeko estrategia

Eskaintza merkaturatzeko masa kritiko nahikoaren garapena

Aurretiazko azterketak nahiz diagnostikoak eta naturarekin lotutako produktuen garapenean pilaturiko esperientziak kontuan hartuta, ikerketa hau beharrezkoa da, ornitologiari (produktu turistikotzat) buruzko proposamen batekin lan egin

ahal izateko; proposamen hori, beharrezkoa denean, beste solaskide batzuekin kontrastatzeko.

Memoriaren barruan, hauxe sartuko da: antolamendu-eredu bat eta eragileek bertan duten posizioa, lehentasunezko eskaintzaren hautapena, egozteko moduko kostuak eta proiektua garatzeko jardueren kronograma.

Ezinbestekoa izango da Eusko Jaurlaritzako eta Foru Aldundietako ingurumen-sailekiko koordinazio eta komunikazio iraunkorra, proiektua garatzeko eta ezartzeko fasean.

Ikerketa honetan, gainera, beste lan gehigarri eta osagarri batzuk oinarrituko dituzten irizpideak ere sartuko dira; lan horiek egiteko abiapuntuak lehiaketan atera den honetan finkatutakoak izango dira, esate baterako, gidaliburuen diseinua, argitalpen espezializatuak eta liburuxkak, lege-ereduak, etab.

IKUSKAPENA ETA KONTROLA

BASQUETOURL agentziak lanen zuzeneko ikuskapen eta zaintza iraunkorra egingo du. Horretarako, adjudikaziodunak laneko edozein prozesuren edo faseren azterketa egingo du. Adjudikaziodunak ikerketaren jarraipena egiteko bilera-egutegia finkatu beharko du, non BASQUETOURL-ek zehazturiko arakundeetako agenteek hartuko dute parte.

BASQUETOURL agentziak adjudikaziodunari laguntza emango dio, bere esku dagoen informazio guztia emanda; gainera, horrekin lankidetzan jardungo du, berak ez dituen informazio-iturriak lortu ahal izateko.

Lanen zuzendaritza BASQUETOURL agentziako ordezkari batek egingo du, eta horrek koordinatzailetzat eta ikuskatzailetzat jardungo du. Adjudikaturiko proposamenean egindako edozein aldaketak, gainera, BASQUETOURL agentziaren adostasuna izan behar du, eta horrek lanetako jarraibideetan aldaketak adierazi ahal izango ditu edozein unetan.

LANAREN KONFIDENTZIALTASUNA ETA JABETZA

Txostenak eta horietan jasotako datu guztiak, baita horien ondorioz sortzen direnak ere, BASQUETOURLen jabetza soilkoak izango dira.

Era berean, konfidentzialak izango dira, eta ezin izango dira argitaratu, ez oso-oso ez zatika, eta beste edozein motan ere ezin izango dira erabili,



BASQUETOUR agentziak idatziz emandako berriazko eta aurretiazko baimenik gabe.

Adjudikaziodunak ezin izango du inoiz ere proiektuei buruzko adierazpen publikorik egin, baldin eta BASQUETOUREn berriazko eta aurretiazko baimenik ez badu.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Adjudikaziorako irizpideak, bakoitzari buruzko puntuazioarekin, ondoren adierazitakoak dira:

1. Memoria teknikoa.	40
2. Talde teknikoa	30
3. Prezioa	30

AURKEZTEKO EPEA

Proposamenen aurkezpeneko epea 2008.eko irailak 12an. 12:00etan bukatzen da.

EGITEKO EPEA

Egiteko epea kontratua adjudikatzen denetik sei (6) hilabetetara bukatzen da.

ZENBATESPEN EKONOMIKOA

Ikerketaren kostua ez da 65.000tik gorakoa izango. Ordainketak, %30 kontratua sinatzean, %40a produktuaren definizioa eta karakterizazioaren zirriborroarekin eta beste %30a lana bukatzean.

